

NARO foroare barnean "Argazki erakusketa: emakumeen lanaren bilakaera" Oñati eta Bidasoako campusetan

2008/05/14

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, berriz ere, urtero bezala, "NARO: berdintasuneko gunea" abian jarri du.

Topaketa hauetan, hainat erakunde, elkarte eta kolektibok emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde egiten ari diren lana biltzeko, ikustarazteko eta sendotzeko aukera dago.

Berdintasunerako gunea hau, 2004 urtetik hona urtero ospatu da, urtez-urte arrakasta handiagoa izanez. NARO 2008: Berdintasunerako V. Gunea, maiatzeko 12tik 31ra egingo da eta oraingo honetan ere, jorraturiko gaiak sei arlo nagusitakoak izango dira:

- Sensibilizazioa eta Pentsamolde Aldaketa.
- Emakumeen aurkako indarkeria.
- Hezkidetza.
- Ekonomia eta enplegua.
- Osasuna.
- Jabekuntza eta Gizarte Partaidetza.

Oraingoan, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, Ekonomia eta Enpleguaren atalean, "Emakumearen Lanaren Bilakaera" argazki erakusketa antolatzen du.

Erakusketa hau, maiatzaren 12tik 16ra Oñatiko Campusean egongo da eta 26tik 30era Bidasoako Campusean. Egun osoan zehar egongo da erakusketa ikusteko aukera.

